# 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 232023 KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

# LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 232023 CONVIVENCIA INTERCULTURAL

## SAILAREN MEMORIA

## I. MEMORIA

2022ko ekitaldian zehar garatu beharreko aurrekontu programa honek barnean hartzen zuen lurraldean dagoen aniztasuna kulturarteko bizikidetzaren ikuspuntutik kudeatzea, migrazioaren errealitatea ikertzea eta ikusgarri egitea, zurrumurru, aurreiritzi eta estereotipoen aurkako sentsibilizazioa eta borroka, sektore honetan lan egiten duten entitateak babestea eta indartzea, topaketa eta harreman espazioak bultzatzea eta, azken batean, kulturarteko bizikidetza sustatzea, genero ikuspegia zeharka txertatuz giza eskubideen ikuspuntuarekin.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

2022an zehar, ondoko hauek izan dira bizikidetza eta kulturartekotasunaren gaietan egindako ekintzak:

**1.- Aniztasuna kulturarteko bizikidetzaren ikuspegitik kudeatzeko 2021-2024 Estrategia lurraldean ezartzea.**

2021ean aurkeztu eta hasitako estrategia hori ezartzeko, Diputatu Nagusiaren maiatzaren 20ko 148/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoan kulturarteko esku-hartzea koordinatzeko eta dinamizatzeko idazkaritza teknikoak sortzeko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzeko beharra ezarri zen.

Kontratazio hori geroago esleitu zen, Diputatu Nagusiaren urriaren 11ko 370/2022 Foru Dekretuaren bidez. Bi lote bereizi ziren, eta, beraz, bi erakunde arduratu ziren kulturartekotasunaren eremuko espazioen, eragileen eta ekintzen mapaketak egiteaz eta eguneratzeaz kuadrilla bakoitzean, bai eta ekintza eta koordinazio egiturak sortzeaz eta/edo indartzeaz ere. Zeregin horiek laguntza tekniko honen xedearen barruan daude, hedapen hori lortzera bideratuta.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

## I. MEMORIA

El objetivo de este Programa Presupuestario a desarrollar a lo largo del ejercicio 2022 comprendía la gestión de la diversidad presente en el territorio en clave de convivencia intercultural, la investigación y visibilización de la realidad migratoria, la sensibilización y lucha contra los rumores, prejuicios y estereotipos, el apoyo y fortalecimiento de las entidades que trabajan en este sector, el fomento de espacios de encuentro y relación, y en definitiva, la promoción de la convivencia intercultural, incorporando transversalmente la perspectiva de género con enfoque de derechos humanos.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Durante 2022 las actuaciones realizadas en materia de convivencia e interculturalidad han sido las siguientes:

**1.- Implementar en el territorio la Estrategia para la Gestión de la Diversidad en clave de convivencia intercultural 2021-2024.**

Para la implementación de esta Estrategia, ya presentada e iniciada en 2021, se estableció mediante Decreto Foral del Diputado General 148/2022, de 20 de mayo, la necesidad de contratar el servicio de asistencia técnica para la creación de secretarías técnicas de coordinación y dinamización de la intervención en clave intercultural en el Territorio Histórico de Álava en el ejercicio 2022.

Esta contratación se adjudicó posteriormente, mediante Decreto Foral del Diputado General 370/2022, de 11 de octubre, distinguiéndose dos lotes y siendo por tanto dos las entidades que se han encargado de realizar y actualizar mapeos de espacios, agentes y acción en el ámbito de la interculturalidad en cada cuadrilla así como de generar y/o fortalecer estructuras de acción y coordinación, tareas incluidas en el objeto de esta asistencia técnica dirigidas a la consecución de dicho

despliegue.

**2.- Immigrazioaren fenomenoaren ikerketarekin eta ikusgarritasunarekin eta kulturartekotasunaren euskal politika publikoen hedapenarekin lotutako ekintza-ildoari eustea.**

Diputatu Nagusiaren uztailaren 29ko 309/2022 Foru Dekretuaren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateari zuzeneko dirulaguntza ematea onartu zen, Arabako Lurralde Historikoan migrazio fenomenoa ikertu eta ikusarazteko eta kulturarteko ikuspegia duten politika publikoak aztertzeko.

Dirulaguntza honen esparruan egindako zereginak honako hauek izan dira: kulturartekotasunaren arloko datuak eta egoerak aztertzea eta Arabako foru-egitura eta kuadrilla desberdinekin alderatzea; kultura-aniztasunari eta bizikidetzari buruzko komunikazio eta sentsibilizazio kanalak bultzatzea autonomia erkidegoaren mailan, kanal horiek Arabako lurraldean lurreratuz; eta, azkenik, Arabako lurralde osoan “Aniztasuna Kudeatzeko Estrategia: kulturarteko bizikidetzaren alde, 2021-2024” delakoan jasotzen den guztia gainbegiratzea eta kontraste akademikoa egitea (horrek lotura estua du EHU-Ikuspegitik immigrazioko, kulturartekotasuneko eta aniztasunaren kudeaketako politikak bizkortzean, kasu honetan foru eta toki esparruari, koherentzia emateko sortzen den lanarekin).

**3.- Zurrumurruen aurkako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategia bultzatzea lurraldean; zurrumurruen aurkako eragileen landa-sareen dinamizazioarekin eta sentsibilizazio-ekintzekin, genero-ikuspegiarekin eta giza eskubideen ikuspegiarekin.**

2016an Arabako Lurralde Historikoan Zurrumurruen Aurkako Estrategia abian jarri ondoren, 2022an jarraitu zen hura bultzatzen Aiarako, Arabako Mendialdeko, Añanako, Arabako Lautadako eta Gorbeialdeko kuadrilletan laguntza teknikoa emanez (Diputatu Nagusiaren apirilaren 22ko 127/2022 Foru Dekretuaren arabera ezarria eta Diputatu Nagusiaren ekainaren 29ko 184/2022 Foru Dekretuaren arabera ebatzia).

Esparru honetan, zurrumurruen aurkako eragileen

**2.- Mantener una línea de acción vinculada a la investigación y la visibilización del fenómeno de la inmigración y el despliegue de políticas públicas vascas de interculturalidad.**

Mediante Decreto Foral del Diputado General, número 309/2022, de 29 de julio, se aprobó la concesión de una subvención directa a la Universidad del País Vasco para la investigación y visibilización del fenómeno migratorio y estudio de políticas públicas con perspectiva intercultural en el Territorio Histórico de Álava.

Las tareas llevadas a cabo en el marco de esta subvención han sido el análisis y contraste de datos y situaciones en materia de interculturalidad con las diferentes estructuras forales y cuadrillas alavesas; el impulso de los canales de comunicación y sensibilización en diversidad cultural y convivencia a nivel autonómico, aterrizando dichos canales en el territorio alavés; y por último, la supervisión y contraste académico de todo aquello que se recoge en la “Estrategia para la gestión de la Diversidad: por una convivencia intercultural 2021-2024” en todo el territorio alavés, y que está estrechamente relacionado con el trabajo que desde UPV-Ikuspegi se genera para dar coherencia, en este caso al marco foral y local, en el estímulo de políticas de inmigración, interculturalidad y gestión de la diversidad.

**3.- Impulsar la Estrategia Antirrumor y por la Convivencia Intercultural en el territorio, con la dinamización de las redes rurales de agentes antirrumor y las acciones de sensibilización, con perspectiva de género y enfoque de derechos humanos.**

Tras la puesta en marcha en 2016 de la Estrategia Antirrumor en el Territorio Histórico de Álava, en el año 2022 se prosiguió con el impulso de la misma a través de una asistencia técnica en las cuadrillas de Ayala, Montaña Alavesa, Añana, Llanada Alavesa y Gorbeialdea (establecida según Decreto Foral del Diputado General 127/2022, de 22 de abril, y resuelta según Decreto Foral del Diputado General 184/2022, de 29 de junio).

En este marco, se han dinamizado y acompañado a

sareak dinamizatu eta laguntasuna eman zaie, eta bizikidetza ikusarazi, sentsibilizatu eta sustatzeko tokiko hainbat ekimen babestu eta gauzatu dira (prestakuntzak, lantegiak, bideoak, kaleko ekintzak, etab.). Urtea bukatzeko, azaroan "Bizilagunak" ekimeneko kulturarteko bazkaria egin zen, eta abenduan Amurrioko udalerrian ekimen horren ospakizun-topaketa izan zen, 200 lagun baino gehiagoren partaidetzarekin.

Esandakoaz gainera, puntu honetan adierazi behar da XXK erakunde kolektiboak 2022ko lehenengo seihilekoan kontratatutako eta garatutako lana, Zurrumurruen Aurkako Estrategia Arabako lurraldean nola dabilen garrantzi handiko hainbat eragilerekin partekatzeko, hausnartzeko eta kontrastatzeko beharrari erantzuteko. Horren bitartez, ondoko hauekin loturiko gaiak landu ziren: ezagutza-espazio baten sustapena; prozesuaren ikaskuntza, indarguneak, ahuleziak, beharrizanak eta interesak identifikatzea, eta proiektua zabalagotzeko eta konpromisoak indartzeko gakoak ematea.

**4.- Arabako Foru Aldundiak ZAS! Sarearekin (Zurrumurruen Aurkako Sarea – Red Antirrumor) duen atxikimendua eta lankidetza mantentzea, erkidegoen trukerako eta ekintzarako espazioetan parte hartuz eta inplikatuz.**

Arabako Foru Aldundia 2021ean ZAS! elkartea-ZAS! Sareari entitate bazkide moduan formalki atxiki ondoren, Diputatu Nagusiaren irailaren 16ko 344/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko ekitaldirako urteko kuota entitate horren alde esleitu eta ordaindu zen.

Lankidetza-esparru horretan, 2022ko urriaren 22an lehenengo ZAS! Eguna egin zen Agurainen. Ekitaldi ludikoa izan zen, sareak egiten duen lana ezagutarazteko eta herritarrei ZAEak (Zurrumurruen Aurkako Estrategiak) hurbiltzeko asmoz antolatua. Bertan, haurrentzako eta gazteentzako lantegiak, Alai Elkartearen mikroantzerkia, Aitor Vinagreten “Cómo ser racista sin parecerlo” bakarrizketa, photocall, kulturarteko musika eta informazio espazioak egin ziren.

**5.- Irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateen ekimenak babestea, Arabako Lurralde**

las redes de agentes antirrumores y apoyado y ejecutado diferentes iniciativas locales de visibilización, sensibilización y promoción de la convivencia (formaciones, talleres, videos, acciones de calle, etc.), culminando el año con las comidas interculturales del ”Bizilagunak” en noviembre y con el encuentro de celebración del “Bizilagunak” en diciembre en el municipio de Amurrio, en el que participaron más de 200 personas.

Además de lo anterior, ha de señalarse en este punto el trabajo contratado y desarrollado por la entidad Colectiva XXK durante el primer semestre de 2022 para dar respuesta a la necesidad de compartir, reflexionar y contrastar con diferentes agentes clave la marcha de la Estrategia Antirumores en territorio alavés. A través del mismo se incidieron en cuestiones vinculadas al fomento de un espacio de conocimiento, la identificación de aprendizaje del proceso, de fortalezas, debilidades, necesidades e intereses y aportar claves para la ampliación del proyecto y el fortalecimiento de los compromisos.

**4.- Mantener la adhesión y colaboración de la Diputación Foral de Álava con la Red ZAS! (Zurrumurruen Aurkako Sarea – Red Antirrumor), participando e implicándose en espacios de intercambio y acción autonómica.**

Tras la adhesión formal de la Diputación Foral de Álava como entidad socia de la Asociación ZAS!-Red ZAS! en 2021, se llevó a cabo mediante Decreto Foral del Diputado General 344/2022, de 16 de septiembre, la consignación y el abono a favor de esta entidad de la cuota anual para el ejercicio de 2022.

En este marco de colaboración se celebró el 22 de octubre de 2022 el primer ZAS! Eguna en Agurain, un evento de carácter lúdico organizado con el objetivo de dar a conocer el trabajo que viene realizando la red y acercar las EAR (Estrategias AntiRumor) a la ciudadanía y donde se realizaron talleres infantiles y para jóvenes, el microteatro de la Asociación Alai, el monólogo de Aitor Vinagret “Cómo ser racista sin parecerlo”, photocall, música intercultural y espacios informativos.

**5.- Apoyar iniciativas de asociaciones y entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de acciones**

**Historikoan eta Trebiñuko enklabean kulturarteko sentsibilizazio eta bizikidetza ekintzak garatzeko, genero ikuspegia zeharka txertatuz.**

Alde batetik, Diputatu Nagusiaren abenduaren 23ko 374/2021 Foru Dekretuan arautako dirulaguntza-deialdiaren bidez (irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateentzako, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kulturarteko sentsibilizaziorako eta bizikidetzarako proiektuak eta jarduerak garatzeko), guztira 20 proiektutarako dirulaguntza eman zen, bat bakarrik kanpo utzita, baldintzak betetzen ez zituelako, 115.329,60 euroko zenbatekoaz guztira.

Gehienbat kulturartekotasunaren eta aniztasunaren kudeaketaren eremuan ikusarazteko eta sentsibilizatzeko proiektu eta prozesu estrategikoak izan dira, helburu dutenak immigrazioari buruzko aurreiritziei, zurrumurruei eta estereotipoei aurre egitea eta bizikidetza hobetzea eta elkarrizketarako, topaketarako eta harremanetarako guneak sustatzea.

Beste alde batetik, Diputatu Nagusiaren abuztuaren 4ko 329/2022 Foru Dekretuaren bidez, onetsi zen 7.500,00 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea Harresiak Apurtuz - Etorkinei Laguntzeko Gobernuz Kanpoko Erakundeen Euskadiko Koordinakundeari, kulturarteko bizikidetzari buruzko lurralde estrategiak bultzatzeko aliantzen ekosistema sortzeko.

**6.- Arabako lurralde osoan kulturartekotasunaren arloko prebentzio, prestakuntza, sentsibilizazio eta bizikidetza-ekintza propioak gauzatzea.**

Lehenengo eta behin, eta “Aniztasuna Kudeatzeko Estrategia: kulturarteko bizikidetzaren alde, 2021-2024” delakoarekin loturik, esan behar da infografiak, informazio-triptikoak eta hura sustatzeko bideo labur bat egin zirela, eta web orriaren eta sare sozialen bidez nahiz Aldundiaren hainbat espazio fisikotan zabaldu zirela.

Beste alde batetik, arlo honetan 2021ean hasitako bi prozesu sendotu ziren:

**de sensibilización y convivencia intercultural en el Territorio Histórico de Álava y/o Enclave de Treviño, incorporando transversalmente la perspectiva de género.**

Por un lado, a través de la convocatoria de subvenciones regulada en el Decreto Foral del Diputado General 374/2021, de 23 de diciembre, dirigidas a asociaciones y entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de proyectos y/o actividades destinadas a la sensibilización y a la convivencia intercultural en el Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño, se subvencionaron un total de 20 proyectos (excluyéndose únicamente uno de ellos por incumplimiento de requisitos), por un importe total de 115.329,60 €.

En su mayoría han sido proyectos y procesos estratégicos de visibilización y sensibilización en el ámbito de la interculturalidad y la gestión de la diversidad, destinados a combatir prejuicios, rumores y estereotipos ligados a la inmigración y para la mejora de la convivencia, la promoción de espacios de diálogo, encuentro y relación.

Por otro, mediante Decreto Foral 329/2022 del Diputado General, de 4 de agosto, se aprobó la concesión de una subvención directa a la Asociación Coordinadora de Organizaciones No Gubernamentales de Apoyo a Inmigrantes de Euskadi- Harresiak Apurtuz, para la generación de ecosistema de alianzas para favorecer estrategias territoriales sobre convivencia intercultural, por una cuantía de 7.500,00 €.

**6.- Llevar a cabo acciones propias de prevención, formación, sensibilización y convivencia en materia de interculturalidad en el conjunto del territorio alavés.**

En primer lugar, y en relación a la “Estrategia para la gestión de la Diversidad: por una convivencia intercultural 2021-2024”, señalar que se realizaron infografías, trípticos informativos y un breve video promocional de la misma, que fueron difundidos tanto a través de la web y redes sociales como en diferentes espacios físicos de la Diputación.

Por otra parte, se consolidaron dos procesos iniciados en 2021 propios del área:

1) Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillan kultura-aniztasuna kudeatzeko prozesua eta kulturarteko bitartekaritza komunitarioa, José Manuel Álamoren ardurapean: erreferentziazko eragileekin egindako prestakuntza saioak amaitu ondoren, Zubigune partaidetzazko jardunaldia egin zen Guardian, eta landa-ingurunean kulturarteko bizikidetza sustatzeko proposamenen gida bat egin zen.

2) Emakume migratuen eta autoktonoen prozesua Santikurutze Kanpezuko eta Maeztuko udalerrietan eta Artziniegako udalerrian, Bidaya emakume musulmanen elkartearen eskutik: prozesu horren bidez, Magrebeko jatorri/etorkia duten emakumeekiko esku-hartzea sendotu da Santikurutze Kanpezun eta Maeztun, bai eta bi udalerrietako bertako emakumeekiko espazio erkidea ere, eta, horrez gainera, prozesua hasi da Artziniegako emakume musulmanekin, xede udalerrietan kulturarteko bizikidetza genero ikuspegiaz hobetzeko, eta udalerri horietako emakumeen ikusgarritasuna eta parte-hartzea hobetzeko.

Prozesu honen esparruan, nabarmentzekoa da "Araban bizi diren emakume magrebtarren inguruko estereotipoei heltzeko eta zurrumurruen aurkako ekintzan genero ikuspegia txertatzeko oinarrizko gida" aurkezteko jardunaldia. Urrian egin zen, Kanpezun.

**7.- Kulturarteko bizikidetzarekin lotutako ekintzak eta prozesuak zeharka barne hartzea Laia Eskolan (Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskolan) edota beste partaidetza plataforma batzuetan.**

Horri dagokionez, esan behar da arloko dirulaguntzen deialdian, honako testu honi eusten zaiola aurreko ekitaldietan bezalaxe, ekintza lerro hau ikusarazi eta hari buruz informatzeko:

“Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak interesgarritzat jotzen dituen eta publiko orokorrari irekita dauden proiektu diruz lagunduak LAIA - Arabako Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolaren eta/edo Arabako Foru Aldundiaren beste partaidetza plataforma batzuen (Garapen Jasangarriaren aldeko



1) Proceso de gestión de la diversidad cultural y mediación comunitaria intercultural en la Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa, a cargo de José Manuel Álamo: tras la finalización de las sesiones formativas con agentes referentes, dio lugar a la realización de la jornada participativa Zubigune en Laguardia y a la elaboración de una guía de propuestas para la promoción de la convivencia intercultural en el medio rural.

2) Proceso de mujeres tanto migradas como autóctonas en los municipios de Santa Cruz de Campezo y de Maeztu y el municipio de Artziniega, a cargo de la Asociación de mujeres musulmanas Bidaya: mediante el cual, además de consolidarse la intervención con mujeres de origen/ascendencia magrebí en Santa Cruz de Campezo y Maeztu y su espacio común con mujeres locales de ambos municipios, también se ha comenzado el proceso con mujeres musulmanas de Artziniega; todo ello para lograr la mejora de la convivencia intercultural en los municipios de destino con enfoque de género, y la visibilidad y participación de las mujeres de estos municipios.

En el marco de este proceso destaca la jornada de presentación de la “Guía básica para el abordaje de estereotipos sobre mujeres magrebíes vecinas de Álava y para la incorporación de la perspectiva de género en la acción antirrumores” celebrada en el mes de octubre en Campezo.

**7.- Incluir transversalmente acciones y procesos ligados a la convivencia intercultural en la Escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Álava “Laia” y/u otras plataformas de participación.**

A este respecto, señalar que la convocatoria de subvenciones del área se mantiene como en ejercicios anteriores y a fin de visibilizar e informar sobre esta línea de acción el siguiente texto:

“Los proyectos subvencionados abiertos al público en general que la Dirección de Igualdad y Derechos Humanos considere de interés, formarán parte de la programación anual de LAIA – Escuela para la Igualdad y el Empoderamiento de las mujeres en Álava y/o de otras plataformas de participación de la Diputación Foral de Álava (Alianza Alavesa por el

Arabako Aliantza, etab.) urteko programazioaren parte izango dira.

Horrez gainera, kulturartekotasun eta berdintasun arloen arteko lan komuneko ildoa sendotu da LAIAtik eta Zurrumurruen aurkako Estrategiatik, Arabako Mendialdeko Kuadrillan estereotipo, aurreiritzi eta emakumeekin zerikusia duen prozesuarekin jarraituz eta hori zabalagotuz. Aurreko atalean eman dira prozesu horren xehetasunak.

Halaber, Laiaren programazioan bertan, kulturartekotasunaren eta generoaren gaiak landu dira, eta gai horiei buruzko hainbat lantegi eta saio jaso dira.

**8.- Erakundeen eta hirugarren sektorearen elkartrukerako eta koordinaziorako foro eta egituretan aktiboki parte hartzea.**

Kulturartekotasunaren arloko teknikariek parte hartu dute Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren barruan parte hartze, sentsibilizazio eta kulturako lan batzordeak deitutako bilera guztietan.

Gainera, ZAS! Sarearen osoko bileretan parte hartu da.

Baita ere, EAEko Immigrazio eta Kulturartekotasun Teknikarien Sarearen bileretan parte hartu da; sare hori Eusko Jaurlaritzak gidatu eta sustatzen du, prestakuntzarako eta Euskadiko immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloko beste teknikari batzuekin programak eta ekintzak trukatzeko eta proposatzeko.

Oro har, ondo lortu da proposatutako helburuen zati bat betetzea, memoria honetan zehar azaldu den bezala.

Desarrollo Sostenible, etc.).”

Además, se ha consolidado la línea de trabajo común entre las áreas de igualdad e interculturalidad, desde LAIA y la Estrategia Antirrumor, con la continuidad y ampliación del proceso relacionado con estereotipos, prejuicios y mujeres en la Cuadrilla de Montaña Alavesa y Ayala, proceso ya detallado en el apartado anterior.

Igualmente, desde la misma programación de Laia se ha trabajado la cuestión de la interculturalidad y el género, incluyéndose en la misma diferentes talleres y sesiones con esta temática.

**8.- Participar activamente en foros y estructuras de intercambio y coordinación institucionales y del tercer sector.**

El personal técnico del área de interculturalidad ha participado en todas las reuniones convocadas desde la Comisión de trabajo de participación, sensibilización y cultura dentro del Foro Vasco de Migración y Asilo.

Además, se ha tomado parte en las reuniones plenarias de la Red ZAS!.

También se ha participado en los encuentros de la Red de Personal Técnico de Inmigración e Interculturalidad de la CAV: red liderada e impulsada desde Gobierno Vasco para la formación y el intercambio y propuesta de programas y acciones con otras técnicas y técnicos del ámbito de la inmigración y la interculturalidad de Euskadi.

En conjunto, se ha logrado de forma satisfactoria el cumplimiento de parte de los objetivos propuestos tal como se ha ido describiendo a lo largo de esta memoria.